

MINTZAMENA LANTZEN: Maskotak etxean

B1 MAILA

Gaia garatu: Nola aukeratu maskota egokia?



Argazkiak: Pixabay

EGOERA

Gero eta ohikoagoa da etxean animalia bat edukitzea baina animalia guztiak ez dira egokiak pertsona, etxebizitza edo familia guztietarako.

Gure bizimoduak, ohiturek, etxebizitzetako espazioak eta izaerak eragina izango dute maskotari emango diogun zaintzan eta, beraz, ongi pentsatu behar da animalia hautatu baino lehen.

EGITEKOA

Azaldu zer hartu behar dugun kontuan maskota bat aukeratzeko garaian.

Eman zeure iritzia etxean animaliak edukitzeari edo ez edukitzeari buruz eta, amaitzeko, adierazi, zure kasuan, zer nolako maskota duzun (edo hartuko zenukeen) etxean eta zergatik aukeratu duzun (edo zenukeen).

Gaia prestatu ondoren, 2 minutu dituzu horri buruz hitz egiteko.

MINTZAMENA LANTZEN: MASKOTAK

B1 MAILA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Etixerako maskota aukeratu behar dugu.

Gaur egun oso ohikoa da etxean animalia bat edukitzea eta maiz jasotzen ditugu etxean maskotak hartzeko proposamenak eta gomendioak: betiko maskotak, handiak, txikiak, lasaiak, biziak, maskota exotikoak...

Binaka jarrita, adostu zein maskota hartuko duzuen etxean. Horretarako, aztertu argazkietan ematen zaizkizuen aukerak, deskribatu nolakoak diren, zein diren bakoitzaren abantailak eta desabantailak, partekatu zuen gustuak... eta erabaki zer egingo duzuen.



Txakurra



Katua



Untxia



Iguana



Tarantula



Loroa

Argazkiak: Pixabay

GALDERA OSAGARRIAK

- Zertarako behar dugu animalia bat etxean?
- Animaliak ongi moldatzen al dira eskaintzen zaizkien bizitokietara?
- Zer egin dezakegu maskotekin oporretara joaten bagara?
- Zure ustez, jende gehienak kontuan hartzen al ditu animalia beharrak?
- Ze arrisku ikusten dizkiozu animaliak etxean edukitzeari?

HIZTEGI LAGUNGARRIA

ARAZO BIHURTU.- Denbora pasa ondoren, lehen arazo edo problema ez zena arazo/buruhauste bilakatzen denean.

Zakurraren zaintza arazo bihurtu da gure lan ordutegien ondorioz.

KONTUAN HARTU- kontuan izan, kasu egin.

Maskota aukeratu baino lehen kontuan hartu behar dira bere beharrak.

BIZIMODUA. Bizitzeko dugun era, nola bizi garen.

Gure bizimodua azkarregia da, ez daukagu patxadarik.

ERAGINA IZAN. Ondorio bat izan.

Katuari eskainitako arretak eragina dauka bere ongizatean.

ERANTZUKIZUN HANDIA. Ardura handia.

Animalia bat etxean hartzeko erabakia, erantzukizun handiko erabakia da.

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

[16137798 Maskotarik ba al duzu?](#)

[16146367 Maskotak txoratuta](#)

[16345533 Maskotak: erantzukizun handia eta baldintzarik gabeko maitasuna](#)

Bestelako erreferentziak

[Animalia hauek maskota bezala ez!](#)

[Maskotak izan daitezkeen 10 animalia](#)

[Etxeko animaliak, animalia arriskutsuak](#)